

IDENTIFIKATUTAKO KOLEKTIBOA.**ORDAINSARIAK GAINBEGIRATZEAZ ARDURATZEN DEN ORGANOKO KIDEEI
(ADMINISTRAZIO KONTSEILUKOAK EZ BADIRA) AURREKO EKITALDIAN
ORDAINDUTAKOAREN GAINENKO INFORMAZIO KUANTITATIBO AGREGATUA.**

Araudi aplikagarriaren arabera, eta estatutu sozialetan jasotakoaren arabera, KUTXABANK SA erakundeko Administrazio Kontseilua da erabakiak hartzeko organo goren, eta ordainketa arloko politika aplikatzen dela bermatzen duena.

Administrazio Kontseiluak Ordainketen Batzordearen babesa dauka funtzio honetarako, Administrazio Kontseiluari ordainketa arloko gaietan laguntzen dion organoa baita, Administrazio Kontseiluaren Araudiaren eta bere Araudi propioaren arabera. Horretan guztian, Erakundeak ezarritako ordainketa politika zaindu eta betetzen dela bermatzen du.